

Teresa Lizarralde Mujika

*Beasain, Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea

Biografia



Arriaran auzoko Kortabehekoa baserrian jaio zen 1938an. Ikasketak auzoan bertan zegoen eskolan egin zituen. Beasaingo euskara eta ahozko ondarea jasotzeko egin zitzaion elkarrizketan bi ahizparekin batera agertzen da: Maria Angeles (1942) eta Francisca (1930).

Zintak

BEA-045

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-02-15

- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-046

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-02-15
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Auzoa asko aldatu da, urtegia dela-eta

- **Erref:** BEA-045/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arriarango Kortabehekoa baserrian jaiotakoak. Ingurua nola aldatu den; urtegia. Auzoan baserri bakarra geratu zen urpean.

2. Herrirako bidea lokatzez betea

- **Erref:** BEA-045/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Baserriko bizimodua umetan; jolasa eta lana. Ordu erdi behar izaten zuten eskolara edo elizatik etxera joateko. Lokatzez betetako bideak ziren. Nobenak; hileko lehendabiziko ostiralak, etab. Kongregazioak: "Mariaren alabak". Umetako ibilerak.</p>

3. Umetako jolasak: klixkean

- **Erref:** BEA-045/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: klixkean, kanikatan (intxaurrekin egiten zuten), haritzak izaten dituen "poxpoliñekin"....</p>

Transkripzioa

- Hitzuna 1: Oain, adibidez, umek ze ez dauke? Jostaillutatik hasi ta eske, eske, dana ta ez dan guztie dauke. Ta gero eak bakarrik jolasten ez dakie. Laune behar doe jolasteko. Ba, gu ibiltzen giñen klixkeen esaten giñun guk.

- Klixkeen?

- Hitzuna 1: Klixken. Ta intxaurrekin hola bota ta bestek jo ta... Kanikan partez intxaurrekin eitten gendun guk.

- Hitzuna 2: Intxaurrekin txikiñak apartau...

- Hitzuna 1: Txikiñak apartau...

- Hitzuna 2: Txikin-txikiñak.

- Hitzuna 1: Ta haikin.

- Hitzuna 2: Zu... kanikatan ibiltzen? Ezautzen dezu?

- Bai.

- Hitzuna 2: Ba, gu kanikatan intxaurrekin.

- Hitzuna 1: Ba, intxaurrekin txikiñak apartau... Zuk ezautuko dezu zer dan poxpoliñe o ez dakizu zer dan? Haitzek izaten don...

- Hitzuna 2: Haitzek izaten don holako pinporta txiki bat.

- Hitzuna 1: Ba, horri jartzen giñon txurten bat eta zibea bezela dantzan ibiltzen gendun. Osea, horik zien gure jolaseako tresnak.

- Orduan, bertan, inguruan topatzen zenuten... basoko intxaurrekin, poxpolin...

- Bai, bai, bai.

4. Umetako jolasak: "amatan", panpinak, pilotak

- **Erref:** BEA-045/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Umetako ibilerak; jolasak. "Amatan" nola egiten zuten; panpinak. Pilotak nola egiten zituzten. Amak artilearekin haria egiten zuen eta aitak larruzko abarkak.</p>

Transkripzioa

- Hitzuna 3: Ta, esateko, por ejemplo gu juten giñen goizen eskolaa juten giñenen, goizen juten giñen eta egurdin, urruti nola zan, geatzen giñen lehengusun etxeen bazkaltzen. Eta geo denboa asko geatzen zitzaigun guri. Bueno! Laiste jaten gendun guk jan beharrekoa ta seittun libre. Ta amatan jolasten ibiltzen baldin bagiñen, eantzi jertseek eta holako zea bat barrun sartu —arbie o lo ke sea—.

- Hitzuna 1: Bai, muñekak eitten...

- Hitzuna 3: Gaiñetik jertse batekin tapau, bestekin zeau eta muñekak seittun eitten gendun geen kasaka.

- Hitzuna 1: Eta pelotak' e bai, pelotak' e geok eitten giñuzten. Trapue jarri

aurrena, gero etxen billatzen giñutzen artille... Garai hartan gure amak... Pentsau zazu, gure amak eitten zon harie, osea, artilleekin...
- Hiztuna 2: Ni inda neon, e, harie, e?
- Hiztuna 1: Harie beak eitten zon, zeatik gure etxen danak zien... Eta gero eitten zittun galtzerdik.
- Hiztuna 2: Jersek´e...
- Hiztuna 1: Baita. Eta nere aitte zanak, berriz, abarkak eitten zittun. Narrukin beak eitten zittun harek guetzako abarkak.
- Hiztuna 2: Ganadun narrukin.

5. Aitak saskiak, amak artilezko arropak

- **Erref:** BEA-045/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aitak saskiak egiten zituen. Erabiltzen zuen materiala; gehienetan hurritza. Amak artilezko galtzak egiten zituen. Antzinako bizimoduaren inguruko iritziak.

Transkripzioa

- Hiztuna 3: Zestook´e bai.
- Hiztuna 1: Saskik´e bai.
- Hiztuna 3: Basoa jun, gaztiña zepak...
- Hiztuna 1: Gaztiña baiño gehio ibiltzen ziñan hurritze.
- Hiztuna 2: Hurritze, bai, hurritzek.
- Hiztuna 3: Eta [haiei] zeak... nola esaten [zaionan]...?
- Hiztuna 1: Zepak.
- Hiztuna 3: Zepak, zepak. Baiño geo etatzen [zienen], nola esaten [zianan], ba?
- Hiztuna 1: Zumitzek.
- Hiztuna 3: Zumitzek. Zumitzek etaa eta harekin pasauz-pasauz, saskiik, etxeako saskiik, beak eitten zittun.
- Hiztuna 1: Beak eitten zittun. Abarkak beak eitten zittun ta amak galtzerdi artillezkook. Gure ama zanak esan ohi zon... Pentsazu, beatzi ume zittuun, e! Baserrin. Eta gauen galtzerdi pare bat ein´e izandu zoola umek ohira bialdu ta indakon. Pentsazu nolako belozidaden eingo zittuun!
- Hiztuna 2: Harie nahiko lodie...
- Hiztuna 1: Klaro, artillea, bakizu, lorie izaten da, baiño hala ta guzti´re...

6. Amak ehuna egiten zuen linuarekin (lihoarekin)

- **Erref:** BEA-045/008
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Amak ehuna egiten zuen linuarekin (lihoarekin). Linasoroak (liho-soroak) nolakoak izaten ziren; "liñadie". Toponimia. Lihoaren inguruko lanak; tresnak: txarrantxa; etab. Lixiba nola egiten zuten. Emakumeen bizimodua baserrian. Ura etxera ekarri aurretik, garbitu beharreko arropak buru gainean ipini eta errekarra joan behar izaten ziren garbiketarako egitera.

Transkripzioa

- Hiztuna 3: guk ez gendun ezautu, baiño...
- Hiztuna 1: Eta liñoa ´re bai etxeen.
- Hiztuna 3: ... een garaien liñoa eitten emen zuen. Eta ehune eak etxeen. Bazittun pusketak...
- Hiztuna 1: Bai, badauzkeu guk oaindio pusketak gordeta.
- Hiztuna 3: ... pusketak, eak indako ehunenak.
- Hiztuna 1: Etxen indakok.
- Hiztuna 2: Etxen bazien piezak.
- Eta liñua, baiña zeuek ez zenuten ezagutu, ez?
- Hiztuna 1: Bai, bai, bai. Gure etxen...
- Soroa, liñua...?
- Hiztuna 1: Bai. Liña-soroa han [Mendeun] aldeko saasti hue liño ezautu niñan nik.
- Hiztuna 3: Nik ez.
- Hiztuna 2: Bai, bai, bai.
- Hiztuna 1: Nik bai.
- Eta nolakoa zen liñua?
- Hiztuna 1: Liñoa...
- Hiztuna 3: Urdin-urdin-urdiñe.
- Hiztuna 1: Oain´e badao liñoa, e?
- Hiztuna 2: Lora txiki...
- Hiztuna 3: Lora txiki-txikie.
- Hiztuna 1: Oain´e... ez dezu ezautzen?
- Ba, hemen... ikusita, baiña ez.
- Hiztuna 1: Ez dezu ezautzen? Ba, da landara bat luzea. Orri txiki-txikie izaten do eta lora txiki urdin bat.
- Hiztuna 3: Urdin-urdiñe eta oso politte. Liñadie nik ez det ezautu, baiño izan behar do zoragarrie.
- Hiztuna 1: Nik bai.
- Hiztuna 2: Oso politte izango da.
- Hiztuna 3: Urdin-urdin-urdiñe izango da.
- Hiztuna 1: Hantxe nik ezautu non.
- Hiztuna 2: Ez neon gehiegi akordatzen, baiño...
- Hiztuna 1: Amak esan zianan behin, ba, baietz, hue izan zala azkenengo liño-soroa.
- H2: Bai, ba, ni´re gogoratzen neon pixkat, baiño ez hainbeste hainbeste.
- Eta liñuarekin zerikusia duten lanak eta ezagutu zenituzten edo...?
- H1: Ba, hoi, ba...
- Liña-soroa bai eta liña-putzua egoten zen edo...?
- H1: Ez, baiño liñoa ´re, gaiñea, gure etxen tresnak´e oaindio egongo die.
- H3: Txarrantxea.
- H1: Txarrantxea ta...
- H2: Txarrantxea. Kardau eitten zuen.
- H1: Kardatzeko ta... Berau aurrena udetan...
- Hori da. Eta horretarako potzuren bat edo zerbait egongo zan, ez?

- H1: Bai, eske etxe aurren...
- H3: Ez, nik etxen ezautu nona zan...
- H2: Ude beti.
- H3: ... zea, lixubarrie. Lixubea eitteko putzue. Oain´e badao.
- H1: Baiño hori etxe barrun, e? Sukalden, e? Sukalden gendun. Lixuba egosteko lekue?
- H3: Egosteko bai, baiño lixubarrie ez, e? Guk etxen gendunan tiñea.
- H1: Bai, tiñea ta lixuba...
- H2: Bai, tiñea ta azpin zulo bat, e? Ude juteko. Sukalden baxtarren eukitzen gendun...
- H1: Tiña bat.
- H2: Lurrezkoa o ez dakit zer zan.
- H1: Ez, harrizkoa.
- H2: Harrizkoa, zulo bat. Eta gero haren gaiñeen jartzen gendun egur bat o bi jartzen giñun eta han tiña bat zinkezkoa. Ta han jartzen giñutzen erropak. Eta harek azpin nola zuloa eukitzen zoon, goittik botatzen giñun jaboi... surtako hautse eta ude berotuta bota. Eta berriz´e bera juten zan garaien, hartu, berotu ta berriz´e gaiñetik bota.
- Eta sutako hautse zuzenean erropara edo zerbait jartzen zenuten gaiñean?
- H3: ez, ez...
- Zapi edo oihalen bat edo...?
- H2: Igual zaharren bat jarriko giñun. Seguraski jarriko giñun zaharrentxonen bat o, porke surtako hautse... Eta gero, hola, nik ez dakit zenbait aldiz eingo gendun, baiño askotan botatzen giñun.
- H1: Eta gero putzua eaman ta han aklarau.
- H2: Eta gero aska bat genduken guk etxe aurren beti. Ude, beti. Ude ona beti euki deu. Hoixe bentajea. Eta aska bat ganaduntzako etxe ondoon eta beste hautzaxeo koadratu haundi bat —bi aldetatik harrik, jotzeko erropea harrikin—, beste aska bat haundie.
- H3: Lixubarrik. Oaindio´re han dare.
- H2: Gero hautza jun eta [han] izarak... Gogoratzen naiz ni, gu neska gaztek eta arten indarra´re asko ez gendun eukiko, ta ehunezko izarak. Badakizu ze kargea hartzen zoen?! Ze kargea? Ba, haik ezin uretatik ataata, geo han harrin jo ta... komerik [...].
- H1: Eske eak... eske eak eindako izarak...
- H3: Hori guk ezautu gendunen, gaiñea, etxeen zalako harrie, baiño ama zanak-eta eamaten zittuen errekaa. Burun hartu o bizkarren eta errekaa. Ta han aklarau ta geo belardin zabaldu.
- Eta lehenik, baiña, belardin zabaldu aurretik ura kendu behar izango zen...
- Bai [...].
- Horri zelan esaten diozue?
- H3: Eskurrittu.
- H1: Bihurrittu.
- H2: Bihurrittu. Bihurrittu. Bihurrittu.
- H3: Eskurrittu nik.
- H2: Guk bihurrittu beti.
- H3: Hola zeoze.
- H1: Bihurrittu ta eskurrittu gauza berdiñe da.
- Eta gero belarrean zabaldu ta...?
- H3: Belarretan zabaldu. Ta gero hasi giñen alanbretan zabaltzen, baiño aurreti...
- H2: Gero alanbre batzuk jarri baratzen bueltan hola...
- H3: Zurigo etaatzen zala serenotan ta esaten zan.
- Dena dela, lixubea, egunero ezingo zan egin. Ezta astero ere...

- H3: Ez, hamabosten behin.
- Hamabostean behin...
- H3: Hamabosten behin ohiak aldatzen zien gue etxen normalen.
- H2: Bai, nik seguro-seguro hori ez nekin...
- H1: Bai, hamabosten behin.
- H1: Oain aña erropa ez zan garbitzen garai hartan. Hori egie da.

7. Baserriko koltxoiak

- **Erref:** BEA-045/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Artilezko koltxoiak baserrian; nola garbitzen ziren. Arto-malutazko koltxoiak, artoaren zorroarekin, "txorrokarekin", egindakoak. Umeen sehasketan ere arto-zorroak erabiltzen ziren antzina.</p>

8. Umetako ibilerak

- **Erref:** BEA-045/011
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Txori-habia bila ibiltzen ziren umetan. Etxeko giroa; umetako ibilerak, okerkeriak. Gaitzizenak.

9. Ume "matxardak" eta ume "melengeak"

- **Erref:** BEA-045/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

"Matxarda" esaten zioten gaztaina-morkotsak biltzeko erabiltzen zuten egur zatiari, eta ume bihurriari ere hala esaten zitzaion. "Melengea", berriz, erdi-gaixoa zenari, ahula zenari.

10. Arriaran auzoko eskola, oso leku atsegina

- **Erref:** BEA-045/017

- **Iraupena:** 0:07:35. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:34:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Arriaran auzoko eskola nolakoa zen azaltzen dute zehaztasun handiz. Neska-mutilak elkarrekin eskolan; adin desberdinetako umeak guztiak batera. Eskola zoragarria zuten: liburutegia, sukaldea... Zer ikasi zuten; nola esertzen ziren; eskolan zeuden gauzak... Eskolak inguruan zituen baratzea, pilotalekua eta beste hainbat gauza.</p>

11. Mendi batetik bestera gauzak garraiatzeko kableak erabiltzen ziren

- **Erref:** BEA-045/018
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:35:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara joateko biderik ez. Eskola egiteko materialak mendi batetik bestera eramaten zituzten kableen bidez. Garai hartan kable bidez egitea arrunta zen.

12. Tabakoa euren kontsumorako

- **Erref:** BEA-045/020
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Tabakoa ere ereiten zuten etxean. Aitonak pipa egiten zuen, aitak, berriz, zigarroa. Aitak gutxiago erretzen zuen, eta tabakoa aitonari ematen zion.

13. Aletzean, aitaren kontakizunak; lanak amaitzean kantuan

- **Erref:** BEA-045/023
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:44:59. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

Familian elkartzen zirenean, garai bateko kontuak kontatzen zituen aitak batez ere, morroi ibili zenekoak. Aletzera elkartzen zirenean kontatzen zituen. Baserriko lanak ondo banatzen zituzten. Bakoitzari egokitutako lana amaitzean, kantari hasten ziren, bertsoak, elizako kantak...

14. Aisialdiko kontuak

- **Erref:** BEA-045/024
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Josten, bordatzen eta horrelako lanetan ibiltzen ziren logeletan. Horretan aritzen zirenean, adreiluak-eta labean berotu eta oinetan jartzen zituzten.Txori-zepoak jartzen ere aritzen ziren, eta sabaiko (ganbarako) leihotik txoria noiz erori zain egoten ziren.</p>

15. Baserrian geratu behar zirenean, neska eta mutilen arteko alderik ez

- **Erref:** BEA-045/025
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Anai-arrebak zazpi neska eta bi mutil ziren. Etxean norbaitek lanean geratu behar bazuen, txandakatu egiten ziren, ez zitzaielako gurasoei batere gustatzen eskolak galtzea. Alde horretatik, beraz, ez zuten neska eta mutilen arteko diferentziarik egiten. Asteazkenetan aita beti Ordiziara joaten zen.

16. Auzoko lehen irratia

- **Erref:** BEA-045/026
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:52:24. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Aurreneko irratia beraien osabak jarri zuen auzoan. Osabarenera joaten ziren anai-arrebak, eta irratia nola funtzionatzen zuen ondo jakin gabe, Legorretarekin konektatzeko eskatzen zioten, bertako jaiak baitziren. Osabak

albisteak entzuten zituen, baina ezer gutxi ulertuko zuen ingelesez baitziren.</p>

17. Don Candido apaiza, dotrina irakasle

- **Erref:** BEA-045/027
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:53:31. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Candido apaizak irakasten zien dotrina. Askotan Ormaiztegira joaten zen, bertan artziprestea zegoelako. Haurrei ez zitzaien batere gustatzen Don Candidoren eskoletara joatea oso zorrotza zelako, beraz, Don Candido oraindik Ormaiztegitik iritsi ez zenetan hurrek alde egiten zuten.

18. Don Candido apaizaren zigorrak

- **Erref:** BEA-045/031
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:58:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Don Candido apaizaren zigorrak. Belarrietatik tira egiteko ohitura zuen. Erregela ere erabiltzen zuen eskuan jotzeko. Ipuinak kontatzen zituen; berak irakurtzen zuen aurrena, eta laburpena egiteko eskatzen zuen. Ondoen egiten zuenari estampa ematen zion.</p>

19. Garizuma; debekuak eta txartela

- **Erref:** BEA-045/033
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Garizuman haragirik ezin zuten jan, baina haiei ez zitzaien batere inporta, izan ere, urte guztian zehar urdaia izaten zuten eta haren zaporeaz aspertzen ziren. Garizuman dotrina bazenekiela adierazten zuen txartela ezagutu zuten, baina gazte-gazte zirela. Txartela lortu behar zen, eta estutasunak pasatzen zituzten. Jende askok ez zuen dotrina ikasteko asti edo aukera gehiegirik izaten, eta estutasunak pasatzen zituzten txartela lortzeko.</p>

20. Garizuma garaian egindako txirulak ezin jo

- **Erref:** BEA-045/034
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:02:02. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Garizuman dantza debekaturik zegoen. Txirulak egiten zituzten, eta txirula haiek ea ondo zebiltzan probatu ahal izateko pazko eguna iristeko irrikatan egoten ziren, garizuma pasa bitartean ezin baitzen musikarik jo.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com